

Informazioak eta arrisku murrizketa

EU

BIZIA
ASSOCIATION LOI 1901 SOUTENUE ET FONDÉE
PAR MÉDECINS DU MONDE

ailaket!!

Arriskuak gutxitu festaz gehiago gozatzeko

Arrisku murrizketa

Definizioa: Arriskuak murrizteko politikaren helburua droga (alkohola, tabakoa, kanabisa, kokaina, heroina, MDMA...) kontsumoarekin loturiko osasun arazoak, psikologia arazoak edo arazo sozialak prebenitzea da.

Aholkuak:



- Ongi informa zaitez.
- Lehenagotik pentsatu eta planifikatu zer kontsumituko duzun.
- Pixkanaka kontsumitu (ez da txapelketa).
- Drogen nahasketak arriskuak handitzen ditu.
- Kontsumitzerakoan konfiantzazko pertsonaz inguratu eta ez kontsumitu bakardadean.
- Haurdun egonez gero edo gaixotasun kardiobaskularrak, neurologikoak edo psikiatrikoak izanez gero ez kontsumitu.
- Esnifatuz gero turulo pertsonala (hodia) erabili eta sudurra gazur fisiologikoarekin garbitu, zauriak, nekrosia edota perforazioak saihesteko, eta hepatitis eta bestelako gaixotasunak ez transmititzeko.
- Injektazea da kontsumo biderik arriskutsuena. Injektatuz gero, erabilera bakarreko material esterila erabili gaixotasunak saihesteko (HIESA, hepatitis C eta B-a...)
- Maiz hidratatu urarekin edo azukrea duten edariekin (zukuak...).
- Ondo elikatu.
- Kontsumitu ondoren ez gidatu, kotxean bertan lo egin edo kontsumitu ez duen pertsona bat edo taxi bat deitu.
- Belarriak tapoiekin babestu beharrezkoa bada.
- Kondoiak erabili gaixotasun sexualak ez transmititzeko eta nahi gabe haurdun ez geratzeko.
- Kondoia erabilera zure ardura da, ez utzi besteen gain.

Legeak:

Frantzian

Gaur egungo legeak (1970eko Abenduaren 31eko 70-1320 zkia.) bi zati ditu: bata osasunean oinarritzen da eta bestea zigorean.



Bestalde, 1970eko legeak 4 ardatz nagusi ditu:

• Kontsumoa zigortzen duena (gehienez urtebete kartzelan eta 3.750 euroko isuna).

• Zigor penala produkzio, trafikio eta irabazitako diruarengatik (ekoizle edo trafikatzailerentzat 20 urteko kartzela zigorra eta 7.500.000 euroko isuna gehienez).

Alkohola produktu legala da baina bere salmenta arautua dago. Debekatuta dago leku publikoetan adingabeei saltzea edo eskeintzea.

• Kontsumoaren zigorra saihesteko aukera bat desintoxikazioa da. "Alternatiba terapeutikoa" deritzo.

• Debekatuta dago kontsumoa edo trafikoaren publizitatea egitea, intzitatuz hartzen baita (gehienez 5 urteko kartzela eta 75.000 euroko isuna).



Espanian

Hiritarren Segurtasunaren Babeserako Lege Organikoa 1/92 Legez

kanpokoa da: Leku publikoetan kontsumitzea, droga gainean izatea (nahiz eta salmentarako ez izan) eta kontsumitzeko materiala leku publikoetan uztea (zigor administratibo minimoa 300,51 euroko isuna da).

Zigor hauek kontsumitzailea zentro batean desintoxikatze tratamendua hasiz saihestu daitezke.

Produktzioa, trafikoa, salmenta eta distribuzioa Kode Penalaren 368 artikuluko arautzen ditu (kartzela zigorra eta isuna substantziaren balioaren bikoitza edo hirukoitza izan daitezke).



Zuk hautatu: kontsumitu edo gidatu

Legediak gidarientzat drogen kontsumoa arautzen du.

Iparraldean

Iparraldean gidatzean alkoholemia tasaren muga 0.5g/L odolean da. Tasa gaintzea arau-haustea da, eta isuna, gidabaimenetik puntuak kentzea edota gidabaimena kentzea izan daitezke zigorrak. Odolean 0.8g/L gaintuz gero, delitua kontsideratzen da, eta gidabaimena kentzea eta

kartzela zigorra dira ondorioak.

Gidari hasiberrientzat, bi urterako sei puntuko gidabaimena dutenentzat, gidabaimena baliogabetu eta gidatzeko eskubidea kentzen da gutxienez 6 hilabetez, 0.5g/L-tik aurrera.

Drogen eraginen menpe gidatzea legez kanpokoa da

eta zigortua izan daitezke (bi urteko kartzela zigorra eta 4.500 euroko isuna). Zigorra handitzen da gidariak alkohola kontsumituz gero. Gainera, baliteke droga-kontsumoen arriskuez jabetzeko sentsibilizazio formakuntza ere jaso behar izatea.

Egun, derrigorra da autoan bi alkoholemia test edukitzea.

Hegoaldean

Hegoaldean gidatzean alkoholemia tasaren muga 0.25mg/L botatako arnasean da eta gidari hasiberrientzat edo profesionalentzat 0.15mg/L-koa.

Alkoholemia kontrol batean positibo ematea legez kanpokoa da, 500 euroko isunarekin eta gidabaimeneko 4 puntu kentzearekin zigortua. 0.6mg/L botatako airean gaintzea delitu penala da, eta 1.000 euroko isuna, gidabaimena kentzea eta 3 hilabetetik 6 hilabeterako kartzela zigorra, 12 hilabeteko

isuna edo komunitatearen aldeko lanak egin behar izatea izan daitezke zigorrak.

Arrisku-maniobrak eginez gero bide penala ireki daitezke, eta

ondorioz urtebete eta lau urte artean karneta kentzea, hiru eta sei hilabete arteko espetxealdia, edo isuna, edo gizartearentzako lanak egitea izan daitezke zigorrak.



Kontsumitzeko asmoa baduzu

- Antolatu gaua, informatu gaueko garraio publikoaz.
- Lagun baten etxean, hotel batean edo pentsio batean lo egin dezakezu.
- Familiako norbait edo lagun bat dei dezakezu zure bila joan dadin.
- Taxi bat dei dezakezu.

Larrialdi egoeretan deitu 112 zenbakira.



INFORMAZIO GARRANTZITSUA

Nora jo kontsumoarekin lotutako arriskuez gehiago jakin nahi baduzu:

Iparraldean:

BIZIA
Munduko Medikuek
CSAPA/CAARUD
Euskal kostako ospitaleko Zabal eraikina
Paul Pras karrika
64100 Baiona
Tel: 05 59 44 31 00

Kontsulta anonimoa eta doakoa da baina hitzordua beharrezkoa da.

CSAPA/CAARUD
Euskal herriko Adikzioa
Mercure zentroa
25 Leon Laporte karrika
64600 ANGELU
Tel. : 05 59 63 63 63
Comite64@anpa.asso.fr

Kontsulta anonimoa eta doakoa da baina hitzordua beharrezkoa da.

ZUBIA elkarte
Sagardian zentroa
64600 Donibane Lohitzune

Droga Informazio
Zerbitzua:
0 800 23 13 13
(deia urrik)

Hegoaldean:

Ai Laket!!
Arriskuak gutxitzeko kontsumitzaileen eta kontsumitzaile ohien elkarte.
Jesusen Mirabeen
Sortzailearen kalea, 40 etxabe.
01001 Gasteiz
(+34) 945 23 15 60
www.ailaket.com

Erakundearen direktorioa, Programak, Zerbitzuak eta Drogei buruzko zentroak
www.directoriadroga.net



BIZIA irabazi asmorik gabeko elkarte da (1901 legea), Médecins du Monde-gatik lagunduta eta sortua. BIZIAK bi zentro kudeatzen ditu: Adikzioen Laguntza eta Prebentziarako Zentroa (CSAPA) eta Droga Kontsumitzaileen Arrisku Murrizketarako Harrera eta Laguntza Zentroa (CAARUD). Aldi berean, mugazgainetiko kolaborazio proiektuetan parte hartzen du, profesionalen formakuntzan eta nazioarteko biltzar bat antolatuz (THS). Elkartearen helburuak hainbat dira: substantziaren edo substantzia gabe adikzioaren bat duten pertsonen laguntza, familientzako laguntza eta aholkularitza, edozein publikorako zuzendutako informazioa eta baten formakuntza eta substantzia-opsioaktiboen erabilerari lotutako prebentzio puntu arrisku murrizketa ekintzak.

Ai laket!! irabazi asmorik gabeko elkarte da eta legez kanpoko drogen kontsumitzaile zein kontsumitzaile ohiek osatzen dute. Elkarrekin, kontsumo arduratsuen eta drogen erabileraren arriskuak murrizteko ikuspuntuetatik, substantzia psikoaktibo ezberdinekin bizitzen ikastearen aldeko apustua egiten du. Izan ere, drogak kontsumitzea ala ez, pertsona helduek informazioa jaso ondoren askatasunez hartu beharreko erabakia dela uste du. Ai laket!!-en asmoa, beraz, ez da erabaki horren gainean eragina izatea, baizik eta informazioa, erabakia praktikoa eta sinergiarri eskaintzea, kontsumitzaile erabakia hartzekotan, erabakia ondo hausnartutakoa izan dadin eta kontsumitzaileek zentzudun jokatzeko informazioa izan dezaten.

Centre de soins en addictologie
CSAPA-CAARUD, CHCB Bat.
Zabal Avenue Paul PRAS
64100 BAYONNE
(+33)559443100

bizia.mdm@orange.fr
www.droguenet.com
www.droganet.com
www.drogua.net

Ai Laket!! Jesusen Mirabeen
Sortzailearen kalea, 40 etxabe.
01001 Vitoria-Gasteiz
(+34) 945 23 15 60
ailaket@ailaket.com
www.ailaket.com

LAGUNTZAILEA:

Euskadi, auzolana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

